

ANAITASUNA

B I Z K A I A

167 gn. zenb. — 1968, agostuak 30 — 4 pta.

AITA SANTUAK BARRIRO BERBA EGIN DAU

«*Humanae Vitae*» Entziklikea, kalean dago. Abade eta laiku, kristiñau direanak eta ez direanak, danak interesatu dira dokumentu garrantzitsu onegaz, naizta uda sasoia izan.

Orain egun gitxi dala, zera esan eustan abogadu batek: «Baiña Entziklika ori *gogorregia* da, ate guztiak zarratuta ixten ditu, uts emon deutse esperantza guztieri.

«Eleizearentzat eta kristiñauentzat ez ete zan egokiago eta obeago izango, *bide erreza* Ebanjelio maillara jasotea?

«Era onetan, pekatu asko galerazoko lirake; eta mesede aundia egingo litzakio, gero ta habitante geiago daukan mundu barri oneri. Bide orretatik, bide gatxetik zelan jo dau ba Aita Santuak?»

Beste aldetik barriz, kristiñau askok aspalditik artuta euken eragabia, Entziklikeak esan eta agintzen dauanaren kontrakoa, bein baiño geiagotan eleizgizonen kotsejua bitarteko dala.

«Ta orain askatasun ori zelan barriro kendu? — galdetzen* dabe askok. Zelan orain jenteari barriro atzerantz joan eragin? Gauza errezagoa da askatasunik ez emotea, emonda gero kentzea baiño».

Bai, guzti ori olantxe da. Guk baiño argiroago ikusten dau bere Entziklikan Aita Santuak berak.

Ta alandaguztibe, Paulo VI garenak bide gatxetik jo dau, iñoren zeresanaren bildur barik.

Baiña pentsa daigun apurtxu baten. «*Humanae Vitae*» deritxon Entziklikea, oraingo gizartearen espirituaren kontra ete doa, askok uste daben lez?

Nire eritxiz, gure denporeagaz batera doa. Ona emen nire arrazoia:

Gure denporak, demokrazia denporak dira, edonon, lurralde guztietan, Estaduetan eta ikastetxeetan, familietan eta abar.


Arrokera ta zarata aundiagaz milla bidar esaten da, gure zibiliza-ziñoaren asierea, erdia ta azkena gizona dala; ikusten direan izakien* artean, gauzarik aundiena ta sagraduena, gizona dala.

Munduan zear, millaka eta milloika gazte ta gizon eldu prest dagoz, demokrazia onen alde, bear bada, euren odola ixurteko*.

Demokrazia, ori bada —ta orixe dala esango neuke—, orduan Aita Santuaren Entziklikea demokrazia onegaz batera doa.

Entzeklikea, gizonaren alde dator. Personearen alde jokatu gura dau. Baiña ondo ulertu, irakurle. Ez kalean dabillen gizonaren alde. Gizon orrek ba dauko, bere bizi, izate eta eskubideak aurrera atarateko indarra ta kemena.

Entziklikeak indar bako gizona defenditzen dau, erru bakoa, oraindiño bidean datorrena, izan bear dauan gizona. Ta au bai dala urrezko demokrazia, benetako demokrazia!



Zera be bai defenditzen dau, mundu onetara bizitzea ekarri bear daben senar-emazteen osasuna.

Ez da ori benetako demokrazia? Lege gogorra, legea baiña. Ondo dator emen, aintxiñako erromatarren esaera jakintsua: «Dura lex, sed lex».

JOSE LASA

(ZERUKO ARGIA aldizkaritik bizkaieraztua)

● **JOSE DE ARTECHE'REN "EL PUNTO GERO"**

4 gn. orriald.

● **EUROPA BARRIARI BEGIRA**

5 gn. orriald.

● **"HUMANAE VITAE" ENTZIKLIKEA**

7 gn. orriald.

Euskerearen batasunaz barriro

Euskera idatziaren batasuna egitea, gure izkuntzearentzat sendagarri eta indargarri on bat izango dala uste dogu. Bateratuta dagozan izkuntzak, bestelako dizdira bategaz agertzen dira, bai etxeko eta bai kanpokoen aurrean bere. Liburuak errezago argitaratzen eta zabaltzen dira. Euskera batua errezago sartu leiteke eskolan, errezago ikasi eta irakatsi be bai. Sendo eta mardul bizi direan izkuntza guztiak, bide orretatik jo dabe beintzat.

Orain kontua au da: euskerearen batasun ori zelan egin? Izan be, arrisku aundiko puntua da au, nire ustez. Okerreko bidea artu geinke; eta orduan, mesedea barik, kaltea egin leitekio euskereari. Bizia eta osasuna ekarri bearrean, eriotzea ekarri leiskio sasi batasun batek. Ardura aundiko arazoa da au, inondik bere. Ze moduzko batasuna egin gura dan, ondo ikusi eta aztertu bearra dago.

USTE OKER BAT

Batzuk uste dabe, onako au izango litzakela batasuna egiteko area: bildu* daitezala sei-zazpi edo amabi euskaltzain eta euskaltzale, euskera mueta* guztiak ondo dakiezanak; eta euskalki guztietatik gaiak* artuaz, emon deiskueta euskera barri, osotu edo batu ori. Praka edo jake bateri adabakiak* eta ipinkiak* zelan jarten jakozan? Ba gitxi gorabeera olantxe. Onako au bizkaieratik artu, beste ori alako lekutik, beste a ez dakit nondik, eta orra euskera batua eta bakarra egin da. Ikasi daiela gero danak au, danak idatzi daiela euskera onetan, irakatsi daitela eskolan, eta orra dana eginda. Bapo! Baiña olan egiten ete dira gero gauza oneek? Ez dot uste. Nik beintzat ez dot ezagutzen, era orretara egindako literatura izkerarik*.

Orrelan, naaste bat egingo geunke. Laboratorioko izkuntza artifizial batek urtengo leuke. Uste oker au, gitxi asko zabaldua egon da —eta dago oraindiño— gure aroko* euskaltzale eta idazle askotxuren artean. Jokabide lez be erabili izan da idaztean. Ara zer diñoan Mitxelena jaunak jokabide onetaz: «Ez ete da bearrezko, orrelako naaste baten izkuntza biziaren kemen eta jatortasuna urtutea eta desegitea, argizaia sutan lez».

Euskera oneri akats bat topetan jako: asmatua, artifiziala izatea. Ez da jatorra. Ez da guztiz benetazkoa. Euskaldunak ez dau

berea lez autortzen. Barruko izerdia, odola, bizia falta jako. Literatura izkerak* ez dira taiu* orretakoak. Neurri baten, gizonen obrak dira, bai; baiña ez era orretara egiñak. Gizarteko frutu gozoak dira. Tradiziñoz eta oituraz **geldi geldika** sortuak eta umotasunera* elduak.

SASI BATASUNAREN ARRISKUA

Onegaz ez dogu esan gura, andik eta emendik artutako kutsuak* eta ikutuak* ezin egon leitekezanik. Baiña gauza bat da, ango edo emengo kutsu zerbait izatea; eta beste bat, alde guztietako gaiakaz* naaste ikaragarri bat egitea.

Domingo Agirrek, gipuzkeraz egin nai eban «*Garoa*»; baiña ba ditu, alan be, maikiña bat gauza, bizkaieratik artuak. Eta euki bear, egillea bizkaitarra zan ezker. Iturriagaren alegietan* be, ezagun da Lapurdi aldeko euskerearen kutsu* edo ikutu* zerbait. Eta bardin Lizardigan; onek be, Lapurdiko itz eta esakera batzuk sartzen ditu bere idaztankeran.

Orrelako artuemonak, beti egon izan dira idazleen artean. Eta azkenik, idazleen egitez, zenbait* itz, esakera eta abar, andik edo emendik karreatuak* izanarren, literatura izkeran* onartu eta sustraituta gelditu izan dira.

Baiña izkera osoa toki danetatik artutako gaiakaz eratu gura danean, ba dakigu zer sortzen dan: laboratoriko umea, izaki* artifiziala, guzurrezkoa, gozo bakoa. Aragi-azurrezko gizakientzat* balio ez dauana.

LITERATURA IZKERAK ZELAN SORTZEN DIREAN

Gauza miragarria dira literatura izkerak. Gizonak egindako tresnak direala esan leiteke, gura badozu; baiña au, ondo ulertu eta neurtu bear da. Ez dira laboratoriko izakiak*. Ez dira artifizialak. Oitura eta tradiziñoaren lana dira. Eta ainzuzen, orrexegaitik dira gauza jatorrak, egiatzkoak: berez lez sortu, erne, eldu eta umotu* direalako. Eta orrexegaitik nabari* da eurotan biziaren taupadea, erri arimearen oiartzuna*.

Jakiña, erri eta izkuntza guztietan, gauzak ez dira bardin gertatu. Baiña gorago esan dogun au, edonongo literatura izkeretan ger-

tatu izan da: izkera orreek, tradiziñoz eta oituraz sortu, azi eta indartu direala.

Esate baterako, orra or Italia. Italiar izkuntzea, modu askotara mintzatzen* zan (eta mintzatzen da orain bere). Baiña errialde bateko izkerea —Toscanakoa— asi zan gailurtzen*, idazle argi eta ugariak izan zitualako; eta geldu geldika italiar guztiak areen erara idaztera jarri zirean; eta orra batasuna eginda.

Orrelako zerbait jazo zan aintxiñako Grezian bere. Asieran, errialde bakotxeko dialektuan idazten eben. Baiña Atenaskoa gaillurtu* zan; eta azkenik berau gelditu zan nagusi, ortik eta emendik artutako kutsu* apur bategaz. «*Koine*» izena emoten jako greko era oneri, au da: greko arrunta*, danna, orokarra*. «*Koine*» onetan idatzi zirean Testamentu Barriko liburuak.

Jakingarri eta gogoan eukitekoak dira gauza oneek. Batez bere, sasi batasun bat egitetik gorde gaitez.

L. VILLASANTE

(ARANTZAZU aldizkaritik bizkaieraztua)



Aurreratuta daukozun dirua gordeteko
BIZKAIKO AHORRU KAJA
dozu onena

Etxe nagusia: Pl. España — BILBAO
Tel. 243600.
15 sukursal Bilbaon

65 sukursal Bizkaiko erri nagusietan
Madrilleko Etxea: I. C. C. A., Alcalá, 27
Tel. 2214995

BIZKAIKO AHORRU KAJEAK

Bilbaon eta Probintzia osoan lanik zabalena egiten dau benefizentzia ta gizarte saillean, eta laguntzarik probetxugarriena emoten dau osasun kontuan.

Eritxiak eritxi

Itz internazionalak edo universalak direlata, aldizkari onetan argitaratu zan nire idazkiari buruz, erantzun zorrotzak eta zentzunez beteak jaritxi* dodaz *Kamiñazpi* eta *Bermeoko Bategandik*.

Bieri, aurretiaz, nire begirune ta itzal oso osoa, naiz eta euren izen-abizenak agertu ez.

Aldizkari onetan Garitaonandiatar Gotzonenek bein esan eban lez, «arria jaurti eta eskua gorde» egin dabe oneek be. ANAITASUNA*k arautzat* euki bear leuke, izen-abizen barik idazkirik ez argitaratzea sail onetan. Nik, argi eta garbi emon neban nire eritxia; eta ori, beste edonok be egiteko eskubide bardiña dauko. Zegaitik nortasuna ezkutatu? Ni neu, poztu egin naiz ikusirik, nire idazlantxua ainbeste adipenez* irakurri dabela, eta ainbeste nekez eta arduraz jardetsi* deutsoela. Arabere* geiago, Altuna jaunari, nik baiño lenago gai onetzaz idatzi ebanari, jaramonik egin ez deutsoen ezkerok!

Ainzuzenbe, nire idazlan txiki guztiak olan irakurten badira, eta ain oiartzun* aundia lortzen badabe, *Bermeoko Batek uste dauan baiño lasterrago egingo nabe Euskaltzaindiko!*

Eskerrik asko, biotzez, nire jardeslari* izenge* bieri, batez be erritarrari.

Baiña bildur naiz, bai!, nire idazlanaren gogoia eta erixpena* ondo ulertu ez ete daben, eta orrexegaitik emon izan ete deutsoen ain garrantzi aundia. Ze, eritxi soil* bat besterik ez zan nire idazkia. Orrexetarako daukoz ANAITASUNA*k irakurle guztientzat bere orriak ain maiteki edegita.

Zuek be, emon dozue zeuena; eta or amaituko litzake dana, okerrune batzuk sortu ez balira. Okerrune orreek zuzentzera beartu nozue, eta emen nago barriro bere. Labur labur:

Bermeoko Bateri: Erritar agertzen zarean ezkerok, zeuri lenengo.

1. Itz internazionalak edo universalak, eta orrenbeste ez direanak be, ANAITASUNA*ko orri guztietan ikusten dodaz nik. Baita

ZERUKO ARGIA'n eta beste idaztietan be. Ez da, ba, nik orain asmatu-rik gauzea; eta ez dozu euki, nire idazlanak arakatuten* zetan nekatu.

Ikusi 11 gn. orrialdean, izartxu bategaz agertzen direan itzen esangurea.

2. Non esan dot nik, «euskerea oraindiño zivilizatu barik dagoala»? Neure buruari arriak jaurtitea litzake ori, neu be euskeraz ari naizan ezkerok.

Ondo irakurri eizu, arren, nik idatzitakoa; eta *euskerea zivilizatu dala* diñot nik, adiskide: «Beste izkuntza zivilizatuen pare» ipiñi bear dogula diñot nik. Olan ba, euskerea be izkuntza zivilizatu da, *besteen artean*. One-lako minberatasuna, euskereaganako konplejuetatik sortzen da; eta orrek bai dakar nas-tea ta asarrea. Euki daigun gertasun ona, iñoren eritxiak entzutean; eta orduan izango dogu alkarrizketarako askatasun guztizko aroa*.

Bestaldetik, izkuntza bat zivilizatu izango da, darabilenak zivilizatuak direan artean. Eta or, bakotzak daki bere barri.

3. «C» erabilteaz be esan leiteke zeredozer. Ainzuzenbere, ANAITASUNA'n berton ikusia dot VATICANO, olan idatzita, eta izki* aundiakaz gaiñera. Eta ez zan nik idatzitako lana.

Kamiñazpi'ri:

1. Dana aldatu nai bada, izan leiteke dana txarto egotea. Ez aaztu, txarto edo ondo zer dagoan be, eritxizkoa dala. Batzuen eritxiz, Kontziliarik be ez zan egingo, dana egoan ondo ta. Ala ez?

2. «Humiltasuna» eta «humorea», h ta guzti, idaztearen alde zegaitik nagoan esango dot: *Erriak darabiltzalako*. Erriak, egunean-eguneango jardunaldietan beretu eta onartu

dauzalako. Eta neu be, errikoa naizalako eta erriarentzat idatzi gura dodalako. Ez nago, orregaitik, beste itz jatorragoak edo garbiagoak baztertutera, ez olakorik. Nire eritxiz, itz biak («loia» eta «garbia») erabilli leitekez, izenkide (sinónimo) antzera, bakotxa bear danean. Batak ez dau bestea kentzen. Ez dago munduan izkuntza «garbirik». Eta euskereak be ezin leike lege ori urratu. Lengo kartan esan nebana diñot: extremoak, txarrak dira. Eta *garbizalekeriak*, zabarkeriak besteko kalte egin leiskio euskereari.

3. Ondo idazten dozu «vertsoa», «virgiñea», «vorondatea». Zuk, ikusi dozu nire teoriaren sustraia. Baita «valioa», «verbea», «virtutea» ta beste asko be «v»gaz idatzi bear litzakez, nire eritxiz, jatorriak (etimologiak) olan agintzen dau ta. Itz orreek, euskaldunak dira eta izango dira «v»gaz be, gure erriak aspaldi beretu eta euskaldundu ebazalako.

4. Ba dakit Euskaltzandiak erabagita daukona, «b» bakarrik erabilli bear dala; eta neu be orretara moldatzen naiz. Errazoa naikoa da, aginpidea daukonaren errazoa. Baiña orrek ez dau bidea austen, eritxi ezbar-diñak gogartu eta iruzkinduteko*. Eritxiak, eritxi. Ortografia, joko baten antzera, danok arau bardiñean ados* izatea besterik ez da. Baiña izan leiteke, arau ori estuegia izatea, eta jokoa gazatasun* aspergarri baten jaustea. Ainzuzenbe, etimologiak bere gatza emoten deutso izkuntza bateri eta bere ortografiari. Eritxiak emonda dagoz. Agur.

ANTONIO PEREZ BILBAO
Bermeo

Idazlan onegaz amaitu gura geunke eztabaida au. Sasoia da, euskereazko eztabaidok bein ta betiko bukatzeko, aldizkarietan beintzat. Eta eritxi emoiliek ez beie aaztu lendik esanda daukoguna: idazlanak, laburrak izan daitezala.*

ZUZENDARITZEAK

FUNCOR S.C.I.

Gaurko baserritarrak bear dituan
MAKINAK

Trituradora — Errota — Naastale — Zerra
Uruga — Uraska

Europako aurrerapenik onenak
emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114)

ANAITASUNA

amabosterokoa

14

Euskalerriko Anaia Txikarrak argitaratua

Zuzendaria: JUAN AZURMENDI AIZPURU

Zuzenbidea: Torre, 3, 1.º — Bilbao (5) — Tel. 241467

Urteko ordaiña: 75 peseta

Banakoa: 4 peseta

XVI urtea — 167 gn. zenb. — 1968, agostuak 30

D. L.: BI 1.753 — 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12

JOSE ARTECHE'REN "EL PUNTO CERO"



Jose de Arteche, periodista ospetsua

«El punto cero alguna vez tenía que llegar...!»

Donostira joaten gareanean, noizean beinka gure aspaldiko lagun zaar dan Jose Artecheri bisitatxu bat egiteko oiturea daukagu, bere Diputaziñoko lantokian. Alkarregaz poz-negar asko egiñak gara denporetan; eta beste askok lez, **La Voz de España**'n argitaratzen dituan artikulak atsegiñez irakurten ditugu.

Aspaldion ixilik egoan, ixiltasun arrigarri bategaz.

Lengo baten ikusi genduan, «aspaldion ixilik ago; mututu egin aiz ala?», esan geuntsan, erdi broman.

Eta berak erantzun, beste barik: **«Irakurri eik urtengo dauan El Punto Cero»**. Gure gai* orretako alkarrizketea, ortxe gelditu zan.

GARRANTZI ANDIKO ARTIKULUA

Arrezkerokoan, egunak joan eta egunak etorri, eta Artechek agindutako artikulua ori ez zan azaltzen. Azkenean, egun baten (garagarrillaren 20'an), or ikusten dogu **La Voz de España**'n «El Punto Cero», Jose Artechek izenpetuta.

Berantetsiak* giñean artikulua ori irakurteko; eta argitaratzeko izan eban-luzapenak, gure zaletasuna oraindiño geiago anditu eban.

Irakurri ostean, ondo ulertzen dogu belumendu* ori. Gauza gatxa da, izan be, egia batzuk argitaratzea!

Irakurle danentzat, baiña bereziki* idazleentzat, garrantzirik audienetarikoa da, gure ustez, Artecheren «El Punto Cero».

Agertzen deuskuzan kezkek, idazle guztien kezka berberak dira, neurria danontzako bardiaña da-ta.

IDAZLEAREN KEZKAK

Kezkati ta goibel* azaltzen jaku Artechek artikulua orretan. «**Ya no acierto con el lenguaje periodístico**», esaten deusku.

Eta artikulua orretan bertan, or dabil bidebazter batetik bestera, mozkor baten antzera, ezker-eskuma, zuzen joan gura, eta ezifian.

Igarri egiten jaku, bere barrua utsitu nai dauala, kezkatzen dauan zerbait garrantziko esan gura dauala. Berba erdiakaz biribiltzen dauan pentsamentua, guk bear dan moduan ulertzea nai dau. Gatx egiten jaku, antza; eta azkenean, irakurleen laguntzea eskatzen dau: «**pido al lector que colabore conmigo...; no es difícil adivinar...**».

Bai, kezkatu agertzen jaku Artechek. Eta artikulua ori irakurri ondoren, bildur gara, Euskal Erriko idazlea ez ete jakun oraingoz ixildu. Egunkari lanetarako beintzat.

«Ya no acierto con el lenguaje», diñosku beste leku baten.

Artechek, ez daki idazten! Ainbeste liburu eta artikulua eta itzaldi idatzi ta emon dituan gizon argiak, ez daki eskribitzen!

Ikus daigun zegaitik.

BARRUKO ASKATASUNA GORDE NAI

«El Punto Cero» artikulua mamiña, au da, daukon egokitasun guztia ondo ulertzeko, gauza bat bear da jakin: Artechek euskaldun idazle liberal bat dala, eta lenengo ta bein kristiñau euskalduna.

Euskalduna, au da, euskal sentimentuak beste iñok baizen ondo sentidu, aztertu eta azaltzen dakiana.

Liberala, au da, sentimentu zabaleko gizona, besteen eritxiak entzuten eta errespetatzen dakiana, iñorentzako berba gogorrik barik bere eritxiak azaltzen dakiana.

Kristiñaua, au da, sentitzen dauan siñismena, etxean eta kanpoan, eleizan eta lantokian, adiskideakaz eta ezezagunakaz, nonnai eta noiznai siñismen ori bizitzako egintzakaz buztartzen* dakiana. Arlo onetan erudutat* ez geunke beste iñor aukeratu.

Eta orain, edonori bururatzen jakon itauna, auxe da: Zelan izan leiteke, gisa orretako gizon batek idazten ez jakitea, bere pentsamentuak argitaratzeko eragozpenak aurkitzea!

Entzun berak emoten deuskun erantzuna: «**...Si el hombre liberal... por todas partes tiene cepos tendidos, trampas escondidas, dispuestas a cazarle..., necesita**

estar ojo avizor para salvaguardar su íntima libertad, su independencia de criterio».

GURE ATSEKABE TA ESPERANTZEA

Orra or Artechek emoten deuskun erantzuna. Erantzun garbia. Askatasuna dagoala esaten dan lekurako, erantzun gogorra.

Itz orreetan dago Artecheren kezka eta goibeltasun guztien iturburua. Ortxe dago artikulua sustraia. Esan gura, eta ezin! Zepuaren bildur!

Artikulu osoan, asieratik akaburaino, intzirika ari* da idazlea. Eta azkenean, «**...no es difícil adivinar**», diñosku.

Izan be, ez da ulergatxa berak esan gura deuskuna. Eta gure lez, beste irakurle guztiak be ondo ulertu dituela uste dogu, danontzat oarpen* osasungarri direan kezkok.

Bego orretan beraz*. Garbi ikusten dan arazoan, alperrekoa da esplikaziño larregi emotea.

Bakarrik eta amaitzeko, gure atseka-beagaz batera gure goresmen eta agurrik beroenak zuzendu gura deusaguz aspaldiko lagun zaarrari.

«El punto cero alguna vez tenía que llegar...!», esaten deusku.

Baiña «punto cero» ori, beste arlo askotarako «punto de partida» izango dala espero dogu.

Artechek ezin leiteke ixilik egon.

HERNANDORENA

Martin Aldazabal

EUNAK

SOIÑEKOAK

AZPIKOIALAK

Emakume, gizon, gazte ta umeentzat
Baita etxerako gaiak, zatika naiz
atonduta

Tel. 21 04 84

23 12 85

23 12 86

23 12 87

Tendería, 3

BILBAO (5)

SERVAN-SCHREIBER ETA AMERIKAREN AXUTA



Servan-Schreiber

«Amabost urte barruan, munduko irugarren potentzia industrialia U. S. A. eta U. R. S. S.'en azetik, baleiteke Europa ez izatea, Amerikanoen Europako industria baiño.»

Itz onekaz asten da «Le Défi Américain», liburu bikaiña, Frantziako L'Express asteroakoaren publikatzaileak, Jean-Jacques Servan-Schreiber'ek egiña.

«Amerikaren Axuta*» edo aupadea deritxon liburu onegaz, agirian ipiñi dau Servan-Schreiber'ek, zelako urkamendi ekonomikua dauken Iparramerikako enpresa gizonak Europaren gainean ezarrira. Eta ori lortzeko, iru indar erabilten ditue: inbestigaziño industrial ikaragarria, enpresa organizaziño parebakoa eta kapitala. Egia esan, kapital ori, Europatarrak aurreratua da geienbat*.

Periodiku publikatzaile baten semea, Servan-Schreiber'ek kaza egazkiñak erabili zituan Munduko Bigarren Gerratean, Frantziaren alde. Gero aeroplano konpaiña bateko saltzaile egin zan; eta azkenez, 1953'an, L'Express ezkeraldeko astekaria* fundatu eban. Bere 42 urteakaz, Frantzia barri baten aldeko abots* zolia da; eta politika bidean, entzute aundia lortzen ari* da.

«Gu Europatarrok, gerra ekonomikua egin bear deusagu Iparramerikari eta, batak beste gorrotatu barik, alkarren leian ibilli bear dogu industria kontuan».

Onek eta beste azalpen interesgarri batzuk egin ditu Servan-Schreiber'ek Amerikanoentzat, Life aldizkari ospetsuan.

Ona emen batzuk:

«Maiatzeko erreboluziñoan, jente asko egon da larri Frantzian, bizitza sozialean etorri leitekezan aldakuntzen aurrean. Erria ez

zan fidatzen ezkeraldeko partiduakaz. Gobernuaren eleziñoetako garaipenak, geiago zor deutso erriaren bildur eta mesfidantza orre-ri, De Gaulleganako zaletasunari baiño.

«Guk maiatzean egin doguzan lako esplosiñoak, naitanaiezkoak dira errialde industrializatuetan. Europako beste naziño batzuk ez dira De Gaulleren Frantzia baizen gogor-raz, ez politikan, ez ekonomian eta ez gizarte bizitzan. Naziño orreetan, eboluziñoa erabilkorragoa da. Baiña elburua, bardiña izango da: erantzun egokia billatu, gero ta indartsuago progresu industrialak —batez bere uri aundietan— erriari egiten deutson presiñoari.

«Frantzia da oraindiñoarren, Europa gidatu* leiken naziñoa; baiña orain eta illabete askoren barruan, ez da egongo, gidantza ori egiteko bear dan egoera ekonomikuan. Onek esan gura dau, Europaren eragintzea* denpora onetan lotualdi batera eldu dala. Gaur dan egunean, Amerikaren desafiño iñoiz baiño gorragoa da. Europa gidatu leiken bigarren erria, Alemania litzake. Baiña ez da oraindiño sasoi eldu, erri orren gidaritzea onartua izateko.

«Vietnameko gerratea bukatzen* danean, orduantxe konturatuko dira Amerikanoak euren indarrak. Vietnameko gerratea izan ez balitz, Amerikako negozioak Rusia gainduta* eukiko leukee gaur berton, Europa dauken moduan. Rusia zueri (Amerikanoeri) laguntziñoa eskatzen egongo litzake, orain Frantseri refrijeradoreak eta Italiatarrerri autoak eskatzen dabillen lez. Auxe da Rusoen teknologiaren paradojea: Sputniak egiten ditue, eta ezin dabe etxerako zerik egin.

«Gerrate ekonomikua, gerrate interesgarria da. Jenteak ez dau ikusten «panzerrik» etorten. Ez dauka ezeren ikararik. Baiña euki bear leuke. Amerikako enpresak Frantzi-az jabetzen direanean, «panzerrakaz» baiño leunkiago, samurkiroago ibilliko dira. Baiña jabetza orrek luzarago iraungo dau.

«Ez dago kulturarik, ekonomia aldetik malkal dan gizartean. Berrogetamar urte barruan, zeredozer egiten ez bada, Amerikak eukiko dau monopolio kulturala edozetan, jakintzatik musikaraiño. Edertiak*, il egingo dira European.

Konputadoreak dira, zogn. gizaldiko aurrerapen garrantzitsuena. Ba daukagu bonba nuklearra; baiña bonba orrek ez dau gure bizitza aldatuten. Konputadoreak bai. Konputadore bako soziedatea, atzeratuta geldituko da. 65.000 konputadore dagoz Amerikan. 5.000 bakarrik European; eta euretariko eunek 80, Amerikatarrak dira. Asko dira emen, konputadoreen bildur direanak. Erdi Aroko* siñiskeriak! Demoniño bat balitz lez artzen dabe orreek konputadorea, Afrikatarrak automobilla artzen eben lez. Baiña konputadorea, gizonaren gogoaren zerbitzaille bat baiño ez da.

«Gure aldiaren maitemiñean nago. Intelektuaren garaitasuna, osoa da gaur lenengo aldiz; eta industria arloan, gizonaren egoerea sustraiz aldatzea posible da orain. Gero ta gero be indarrak aundiena, garaun indarra da.

A. PEREZ BILBAO

ANAITASUNA

Amabosteroko aldizkaria

ZEURI, IRAKURLE!

ALDIZKARI ONEK MESEDE BAT ESKATZEN DEUTSU:

IL ONETAN,

EGIZU SUSRIZIÑO BARRI BAT ZEURE LAGUN ETA EZAGUNEN ARTEAN.

IRAKURLE BARRIAK GEITUTEN EZ BADIRA, GURE ALDIZKARI ONEK EZIN URTEAN IZANGO DAU, ZORRAK GERO TA AUNDIAGOAK DIRA TA.

SUSKRIZIÑO BARRI BAT EGITEN BADOZU, MESEDE AUNDIA EGINGO DEUTSAZU EURKEREARI.

Orretarako, orri onen atzean agertzen dan txantelak lagunduko deutsu.

Berlingo milla ta bat gau gorriak

Alemania Federalak, orban* asko daukoz. Batzuk, emen ANAITASUNAN salatu* doguz; eta aurrerantzean be, salatuten jarraituko dogu.

Alan be, ba dago beste Alemania bat: DDR, edo Alemaniako Demokrazia Erritarra deritxona. Alemania komunista.

Orain asko ez dala, joan-etorri bat egin aal izan neban bertara, Bermeoko lagun batzukaz. Gure inpresioño ta eritxiak? Ezin esango dogu, onak zireanik. Gure pasaporteak ez deusku ixten, Berlin baiño besterik ikusten. Berliner buruz jardungo dogu, ba.

Berlin, nik Euskal Erriarentzat ezelan be gura ez neukenaren argazki* bizia da. Berlin, Euskal Erri osoa baiño andiago dan uri zoritxarrekoa da. Berlin, Alemania komunistaren erdian dago, ugarte* bat lez. Aragian sartuta daukogun «arantza» bat lakoxea da. Eta arantza orrek min emoten dau, Europak zirkintxu bat egiten dauaneko.

Berlin, Euskal Erria lez, bitan zatiturik dago. Eta besteen interesak eta indarrak iraun erazoten deutsoe egoera triste orretan.

Berlin, orregaitik, naziño arteko interesen Bankaetxe bat lakoxea da: bere interesak, amerikanoen eta rusoen interesakaz batera

goititzen eta beitzen dira. Eta orregaitixek, Berlingen polizgizon larregi ikusten da. Berlingen, gudari arrotzak dabiltz, ikurrin arrotzak dagoz. «Amerikanoen lur zatian zagoz», irakurri zeinke. Edota, «Rusoen lur zatian zagoz»; «Amerikanoak, erri iltzailleak dira».

Berlin, erri bat izaten galerazo deutsoen gizarte apurtu bat da.

Eta Berlingen, orma penagarri bat dago. Ormearen alde batari, Berlin Askatua esaten jako. Orma orreri begira ibilli gara gu, Kurfürstendamm kalean gora ta beera. Eta guk ez doguz Euskal Erriarentzat gura, ez Berlin Askatuko egunak eta ezta gauak bere.

Ormearen beste aldea, Alemania komunistaren uriburua da. Galerazota dago, andik onantza etortea. Iges egin gura dauanak, mitrailleten, poliztakurren eta mina ezkutuen kontu artu bear dau. Ormea igaro bearko dau. Baiña, seguru asko, ez dau askatasuna Berlin federalean aurkituko: lenago bialduko dabe «Vopoa» zerura edo inpernura.

Berlin komunistan, propaganda asko dabil kalean: beste aldeko alemanen (federalen) kontra, amerikanoen kontra. Rusiaren alde. Vietnamen alde. Pragako «errebisionisten» aurka.



Berlingo orma lotsagarria

Berlin komunistara sartzen direan guztiak, eguneko bost marku (90 peseta) gastetako obligazioño daroe. Geuk be, zeredozertxu erosi bear ba! Nire lagunak, denda batera sartu zirean. Ni kalean geratu nintzan, Berlineko planoari begirada bat emoten. Jezarri nintzan, eta ba nengoan ni bake bakean plano begiratzen. Bertatiko baten azaldu zirean polizgizon bi, eta: zer egiten dozu emen? Ikusten dozuena, erantzun neutsen. Turista nintzala ta olakoak argitu neutsezanean, geldi ez egoteko agindu eusten, eta ibilteko norabait. Orduantxe agertu zan nire laguntariko bat, eta aren zain nengoala esan neutsen polizgizon bieri. Txokolata erosi gura genduala. Sartu giñean ba dendara, eta polizgizon biak atean geratu zirean, guk txokolata erosi arte.

Berlin Askatuko politikan gauza asko dagoz txarto, zalantza* barik. Baiña ori igarteko, estadistikak begiratu bear dira, eta erakundeak (gizarteko «estrukturak») aztertu. Kalean dabillanak, gitxi ikusi daike. Berlin komunistan ostera, ziur nago gauza on asko egongo direana: trolebusik ez dago beñik bein. Eta alan be, gauza txar larregi agertzen jakoz, kalean ibilli dabillanari. Nik neuk, egia esateko, nekez sñistu neike, kaleok eratu dituen estrukturak onegi direala.

Esan leiteke, Berlin komunistan ez dagoala iñora begiraterik, polizgizonen bat ikusi barik. Polizia larregi dago, eta ori ez da señaleari ona.

JOSE AZURMENDI, Münster

ANAITASUNA

Amabosteroko aldizkaria

SUSKRIZIÑO TXANTELA

IZEN ETA APELLIDUA

KALEAREN IZENA ETA ETXEAREN NUMERUA

BASERRIA

AUZOA

ERRIA

PREZIOA

Urte onen azkenerarte 35 peseta

Datorren urtearen azkenerarte 110 peseta

IDATZI LETRA ARGIAGAZ, ETA BIALDU TXANTEL AU ZUZENBIDE ONETARA:

ANAITASUNA

Torre, 3, 1.º — BILBAO - 5

"HUMANAE VITAE" ENTZIKLIKEA

Ez dira danak eritxi bateko

Pozarren onartu ei dabe mundu guztiko katolikuak Paulo VI garrenaren «*Humanae Vitae*» Entziklikea. Albista* ori, Espaiñiako Agentziaren batek zabaldu ei deutse egunkariari*. Eritxi au indartzeko, Agentzia orrek diño, Holandako Gotzaiñak be erabat* anartu ei dabela Aita Santuaren erabagia.

Jakin gura neuke, Agentzia orrek zeri deritxon mundu guzti.

Alemanian, ago batez eraso* deutsoe Entziklikeari Prentseak eta Radio-telebisiñoak. Bardintsu, katoliku direan eta ez direanak. Orixe berori, izen ospetsuko teologu askok. Ez dogu jakin, zabalkunde aundiko publikaziño bapere egon danik, Entziklika barria kritika barik onartu dauanik.

Inglaterrako «The Tablet» astekari* katolikuan irakurri daikegunez, ango Prentsarik zabalduenak eta jatorrenak be, txaloka barik, kritika gogorraz ekin* deutso eleizidazti oneri. Uste bardiña geratzen jaku, BBC radioari siñisten badeutsagu. «*Sunday Telegraph*» en agertutako Gallup-eritxibillaketa batek erakutsi deuskunez, Inglaterrako katolikuak, erdiak inguru, Entziklikearen kontra dagoz.

Holandako Gotzaiñak ez dabe oraingoz Entziklikea onartu, ezta baztertu bere. Batzar baten aztertze guraria agertu dabe. Agostuaren azkenetarako itxaroten da Alemaniako Gotzaiñen azalpen bat.

Amerikako Estatu Batuetan, Unibersidadeko irakasle katoliku talde batek eskabidea egin dau, Entziklika guztia ainbat ariñen ikusbarritzeko. Alemaniako zientzilari katolikuen artean, alkarte bat sortu da, Entziklikearen kontra jarduteko, Bochum'eko Unibersidadea buruzagi dala. Inglaterrako laiku akademikuen «*Newman*» alkarteak be, asmo bardiñak daukaz.

Aita Santuak berak autortu deusku, kezka ezta arduraz bete dabela Entziklikeak sortu dituan erreaziñoak. Apur bat geroago adierazoten eban Vaticanoko radioak, erreaziño gogor au euki ebenak, Aita Santuaren asmoak zuzen ulertu barik irakurri ebela Entziklikea. Eta ba leiteke. Izan be, orain esaten danez, erri erdiazieri* jaiotza kontrolaren bidez bakarrik lagunduteko tentaziñoari esi* bat ipiñi gura ei eutsen Aita Santuak.

«*Osservatore Romano*» k berak be ez dau ezkutatu, zelan, katoliku ez direan tartetan, Entziklika barriak kritikea baiño ez dauala sartu erazo.

Espaiñiako Agentzia dalako orrek, «*Osservatore Romano*» ren eufemismuetatik jaso dau, seguru asko, bere albiste*. Baiña ondo diño «*The Tablet*» astekari* katolikuak: «Guzurra zabalduz lagundu gura deutsoe Entziklikeari».

Ikaragarritzko kritika galarren* gogorra sortu da «*Humanae Vitae*» Entziklikearen inguruan. Eta oraindiño ez da baretu. Orixe da egia. Zer billatzen dabe, asarre guzti au ezkutatu gura deuskuenok?

Eta Entziklika onek noraiño lotzen gaituan neurtzerakoan, zegaitik azaldu ez beronen alderdi baltz eta illunak? Kristiñau zintzoena ez da, «amen» ik biribillena emoten dauana.

Kritika oneek zek biztu dituan argitu gura badogu, ur geienak iturburu batera jotzen dabela ikusiko dogu. Andi-andika* esateko: a) jatorritzko* legea ez da, puntu guztietan, Aita Santuak egiten deuskun lez ulertzen; b) teologuen artean ez dago argi, Eleizeak zenbateraiño esku daukon, jatorritzko* legea eta beronen esangurea adierazoteko.

Zer? Ez dogu zer oldozturik* izango, Upsala'ko Ekumenismo Batzarrean egun onexetan 466 Gotzain anglikanok Aita Santuaren erabagia ago batez ezetsi (kondenatu) badeuskue be?

JOSE AZURMENDI, *Alemania*

Pildorea

Aita Santuaren «*Humanae Vitae*» Entziklika orrek, munduari emon deutson zartadea ikusgarria izan da. Lo dagoan bateri, kolkoan asun* berdeak sartzea lez izan da. Benetako astiñaldia!

Danok, itxaropen gozotan gengozan. Esan be, asko esan da or zear, bearbada lar, gai* onetzaz. Teologu, moralista, konferose ta soziologu askok ziurtzat euken pildorearen legezotasuna. Prensa ta olakoak be, barri asko ekarri deuskue ori dala-ta: USA'n euneko 66 andra katolikuk artzen dabela, eleizgizonen baimezez; Frantzia ta Holandan be bai. Berton be, pildora onak eta ez ain onak egozan; frantsesak ei ziran onenak.

Eta... ara nun, goizetik gauera, dana auntzaren eztul biurtzen jakun. Aita Santuak ezetz. Benetan ezetz. Bere Entziklika ori irakurtea baiño ez dago.

Alandabe, jakin danez, Aita Santu, teologu ta moralistak ez ei dira izan pildorearen areriorik gogorrenak. Mediku ta soziologuak izan ei dira, ameseta orreek ezereztu dabezanak. Zer dala-ta? Ondorengoan bildurra. Atea edegiteko bildurra.

Aita Santuak, berak diñoanez, egun eta gau larriak igaro ei dauz, Karta ori argitaratu orduko. Bildurra berak be; munduak txarto artuko ete

ebanaren bildurra. Eta alan izan da. Batzuek ontzat artu dabe; besteak kaltegarritzat. Zorioneko Entziklika ori dala-ta, mundua erdibituta dago. Zorioneko pildorea! Batzuentzat, euren fedearen «test» bat lez izango da. Burubakotasun aundia, baiña batek baiño geiagok itxiko dau bere erlejiñoa, ori dala-ta.

Aita Santuak, ostera, ba ekian ori dana. Alandabe, or dago «*Humanae Vitae*».

Eta... orain zer? Bonbea bota da. Batzuek pozik, besteak erneguz. Protestanteak, Anglikanoak batez be, asarre dagoz. Judeguak eta Ortodoxoak ontzat emon dabe. Katolikuok, erdizka gabiltz. Or entzuten da beintzat, Aita Santuaren Entziklikak be ez dirala utsezkorak, eta abar. Obedientzia be ez dala itsua. Onek gauzok, zeredozer esan nai dabe.

Eta guk? Argi esan daigun, gure fede ta katolikutasunarentzat be «test» bat dala. Zelakoak garean, alan artuko dogu. Baiña ez daigun aaztu, olako gauza bat ez dala epaitu* bear gero... komenentziaren aurreran. Kristok askotan esaten eban: «Entzuteko belarriak dituanak, entzun bei»; «zeruetako Erreiñua irabaztea, gauza garratza da».

A. Z.

AMA LUR

Victoria Eugenia teatrotik urtenda, Basterretxea eta Larruquert jaunak agurtzera joan nintzan ariñak arin. **Ama Lur** pelikulea amaitu zan. Baiña ez alperrik. Gizatalde aundia egoan txaloka teatroko eskillara nagusian.

Gaiñera, zinegille ospetsu biak Astoria zinera joiazan prisandaiaz. Astoria zinean barrero emongo eben pelikulea.

Zer esan neike **Ama Lurraz**, esan ez danik? Ikaskizun aundi bat daukola guretzat pelikula onek. Biaramonean legegizon argi batek esan eustana:

—Ikusi dozu **Ama Lur**?

—Bai. Eta zuri, zer iruditu jatzu?

—Niri? Zer gara gu euskaldunok?

Gure erriaren izakera aberatsa adierazo gura eustan nire lagunak bere erantzun-itaunagaz. Izakereari begiratuta, gure erriaren aberastasuna arrigarria da benetan.

Alkarren begiruneta maitasuna erakutsiko al deusku **Ama Lurrek!** Naparroa aundiaren izakerea ez dala Bizkaiarena

lakoia. Gizpuzkoa eta Araba desbardiñak direala Laburdi eta Zuberoaren aldean. Paisajeak, au da, eguneroko ikuskizunak egiten gaituala garean lakoak. Baiña geure izatearen azpirik ezkutuenean, euskaldun guztiok bat gareala. Eta paisaje orrek, geutarrak egingo dituala kanpotik gure artera datozenak be.

Basotik illobira gorpua lepoan daroen lau gazteak, eta Uxue, Naparroako aintxiña aintxiñako baseleizara, kateak arrastaka doazan marraoak* alkarren anaiak dira.

Senidetasun bardiñekoa, Uxueko katearen soiñu izugarria eta Peñafloredako Kondearen Aitagureak arimeari egin erazoten deutson dardarea.

Zuberoko eleiztorre irukotzak eta Arantzazuko oraiñaldiko torre goitarra, antzekoak dira.

Bardin bardiñak, Naparroako zezenketa errikoi alaiak eta emen urreko beste zenbait* festa. Nok esan leike, zezen festa orreek geure geureak ez doguzala?

Gure erriaren oitura aberastasun arrigarria!

Ikasi **Ama Lurren** bidez erria obeto ezagutzen eta maitatzen, batetik besterako oitura aldatuetan.

Oitura orreek, gure erriaren irudi orrek, sakondu daiguzan barreneariño. Zer esan gura deuskue, aintxiña aintxiñatik jatorkuzan geure ezaugarriak?

Ezaugarri orreek, emen bizi gareanori, modu batera itz egingo deuskue. Kanpoan urrun dagoan euskaldunari, beste era batera. Baiña azkenean, bai batzuek eta bai besteak, biotz zarrastada bardin batek erabiliko ditue.

Euskaldun guztiok alkartu gaitzala geuretik sentimentu bakarrean. Alkar obeto ezagutzen ikasi, eta alkar geiago maitatzen be bai. Alde batekoak eta besteak, Euskalerriaren punta batetik besteraiño.

Auxe danau pentsetan neban neure barruan, **Ama Lur** ikustean eta ikusi otean.

JOSE DE ARTECHE

(Z. ARGIA aldizkaritik bizkaieraztua)

Kontzilio osteko aldakuntzak

Kontziliotik arrezkerokoan, ba dago egon be aldakuntzarik asko. Eleizan eta eleizgizonetan. Ta oraindiño egongo direanak!

Bearrekoenik ez da aldatzen; ezin aldatu leiteke. Berrogei egunetan berrogei traje barri jazten badoguz bere, gure gorputza lengoa da. Trajeak aldatzen dira, gorputzik ez.

Auxe berau gertatzen da eleiz-arazoetan be. Gaiñeko gauzak, azalekoak, aldatzen dira; baiña jatorrizko zimenduak ez.

ERA BARRIAK

Era barriak, molda barriak, arrigarri egiten jakuz askotan.

Jaio giñeanetik ona, beste molda batzuetara oituak gengozan.

Azkenengo bost urteotako aldakuntzak zar askoren burutan sartu ezin badira, eskerrak 2.000'garren urterarte biziko ez direala.

Bestela, zer pentsatuko ete leukee!

Batez bere, Jose Mari Jabierre jaunak esandakoak egiaztuten badira. Ta ni, ziur samar nago egiaztuko direana.

BIARKO ABADIAK

Gu ikusten oituta gagozan abadeen bizimodua, zerao aldatuko da, Jabierre jaunaren eritxiz. Denpora gitxi barru aldatu bere.

2.000'garren urtean, abadea beste edozein lez agertuko ei da. Lanari emonda egongo da, osterantzeko gizasemeak letxe*.

Nekearen eta lanaren bidez irabaziko dau eguneroko ogia. Dirua aurreratzen eta pillatuten ez da aleginduko.

Bere denporea, bere indar eta almenak, Eleizearen onerako enpleatuko ditu, ta Ebanjelioaren zabalkunderako.

2.000'garren urtean, alan nai daben abadeak, ezkongaiak izango dira. Ezkondu gura dabenak, ez dabe eragozpenik eukiko.

Ezkongai ta ezkonduak, alkar arturik egingo dabe lana Barri Onaren zabalkundearen.

APALTASUNERA

Apaltasun eta pobretasunera doa Eleizea. Auxe da beretzako egiazko bide bakarra. Aundikeriak eta aberastasun guztiak, bazterrera itxiko ditu. Alde batera lagako dauz aginteak eta agintezko gogorkeriak.

Burua makurtuko dau; erregaluz jatorkozainbat bereratasuneri*, «ezetz» esango deutse. Langa* aundi bat jarriko da politikuen eta eleizgizonen artean. Bakotxa bere barrutian ibilliko da, iñorenean sartu barik.

Indarrean eta derrigorrean ez dau ezer egin gura izango Eleizeak. Onean dana. Benetako Eleizea lez agertuko da, ainbat kalte egin deutsoen aundikeriak zerao lurperatuta.

OBISPO BARRIAK

Obispo barri adoretzuz osotuko da Eleizea.

Jose Mari Jabierren eritxiz, balio aundiko obispo orreek munduan zear zabaltzen direanean, abadeen oztasun guztiak bapeztu egingo dira. Benetako bakea egongo da abade ta obispoen artean. Kristok, orduantxe eukiko ditu benetako jarraitzaileak.

BASARRI

(Donostiko LA VOZ DE ESPAÑA egunkaritik bizkaieraztua)

Kaleko gizonak diñoana

GIZONTASUNARI DAGOKIONA

Madrilleko Auzitegi nagusiko salatari* gailenak*, agindu garratza banadu deutse menpekoai.

Gizonari dagokion berezko zintzotasunaz diardu, ta jokabide lardats* eta ende-katuak* txarresten* ditu.

Arlo batzuk argiro erakutsi ditu. Gizonaren izakerea aberetu ta doillor* biurtzen dabezanak izentau bere.

Droga gauzak, isilpean ara-onako tratu-tuetan, osasunerako galgarri direan drogen saldu-erosi ugariagoa, egunetik egunera. Zaarrak iñoiz botika maillako direanon zale izan baldin badira, oraingoan gazterik asko drogazale itsu biurtu direalako.

Zatarkerian jausi direanak eta egunero jausten direanak, gazteak betiko ondatuaz, emakumerik asko betiko lorrinduaz*, norbere gorputza tratu-gauza biurtuaz, aragijoko uts besterik ez bailitzan.

Eta oraingo okerrik aundienetarikoak, gizonen alkar-bearra ta edarikeri ikaragarria.

Orra or, salatari nagusiak agertu dituan okerretarik asko.

Gizabide modernuaren etorri onenak, orreik ete dira?

ITXAROPENA BEAR DOGU

Ez dago, ostera, beti negarretan zetan ibilli. Gure eskuan dagoana zuzen bete ezker, Egilleak ez deusku besterik eskatuko.

Mundu osoa urte gitxiren buruan lorrindu* eta zuzituko* dala uste dabe batzuk.

Arrokeriak esan erazoten deutsez orrelako ao zabalkeriak.

Zera, munduaren zil* eta ardatz* guz bagina lez. Gure aurretikoak ainbat eta ainbat izan dira. Eta ondorengoak be, bearbada, ez dira gitxiago izango.

Gaztea danean, amesak galantak izaten dira. Eta baita bear bere. Izan be, udabarrian loratsu ez bagagoz, lorarik geienak galdu egiten direan ezker, lora urri dan tokian, garauak be, ainbat urriago izango dira.

Erein ba azi ona, berba osoz ta gozoz. Baiña batez bere, egitada onak izango ditugu betiko bidelagun.

Norbere zerak kontuan izanaz, besteenak be izango begenduz, ortik letorke bakebiderik egokiena. Baiña gorra direan tokian, ez dabe gaitasunik* izango, auzokoaren premiña ta gurariak jakiteko.

Bai, ba. Or konpon esanaz bakarrik, ez dira gauzak... konponduko.

ARTU ETA EMON

—Zuri zer jatzu atsegiñago: zorrez beterik ibiltea, ala artzekoak izatea?

—Zorra ez da zer ona. Zorra, astuna da berez, karga astuna.

—Orduan, zuk artzekoa nafago, zorra baiño, ezta?

—Jakiña! Beti nasaiago, artzeko dagoana.

—Tira ba! Emoidazuz berrogei milla

ogerleko, ta patxadaz biziko zara urte luzeetan.

BETIKOTASUNA

Pintore ospatsu bateri egindu auxe emon eutsen: irudi egokia aukeratu egiala, koadru baten, «Betikotasuna» pintura bidez ezarteko.

—Ta? asmau al dozu zetariko irudiak ezarri?

—Bai. Emakume bi barriketan.

KALEKOA

Munduko bearrianak

GARIA

Udan albista* onak entzun doguz, aurtan izan dan uzta* ugariaz.

Gari soloetan igaz baiño lur ta azla gitxiago erabili arren, legerri* osoan, igaz baiño gari geiago artu da, euneko 2,2 inguru gelago. Guztiz, 57,2 milloie kintal metriku, garitan bakarrik.

Beste laboreak* bere, mardoago izan dira. Esaterako, garagarra 25,3% gelago. Untzegaria* bere, 18% gelago; ta oloa*, 11%.

Ba al da garau guzti orreik nun gorderik?

ARTOA

Abereen* janari ta pentsurako, Espainiako gobernua artoa ekarri dau kanpoetatik, eta ugari ekarri bere: 3.860.000.000 pesetaren balioa.

Jakingarri da, dirutza orixe izan dala ain zuzen, lenengo bost illabetetan, laranja ta limoetan atzerrietara bialdu izan dana: 4.000 milloie gitxi gorobeera. Igaz baiño 233.000 tonelada urriago.

Ortik agiri da, emendik gorakoan, gobernuak garaun jatekoaz ardura aundiagoa izango dauana.

BESTE JANARI BATZUK

Orio gaiak ondo ei datoz; eta oker aundiren bat izan ezik, 600.000 tonelada lortuko dituela diñoie. Atsegiñago jaku orio ori, urrunagoe-tako soja ugariagoa baiño.

Maasti ta ardantzak igaz baiño beteago ta zindoago datoz; eta edari kontuan, urrialdi ta ezunerik* ez dala izango uste dogu.

Okelea edo aragla zeozer merkeago dabil, legerri-lurrak osotara ikusita. Batez bere, ardi aragla dabil merkeago. Txarririk salneurria*, ostera, bardin samar.

LANEKO GAUZAK

Industri gauzetan, egindakoak ugariegi dagoz pillatuta, tegi* aundi ta txikietan. Salgai gauza asko, ta nok erositik ez. Oraingo esakeraz, stock mardoak gai askotan.

Aintziretan* indar-gai dan ura 65,2% dago egon, tokien artze osoaren ikusian. Baiña ur gordeak urrituaz doaz; eta udeak legor samar irau ezker, udazkeneko euriak eldu arte, estura apurren bat izan leteke.

Turismo beribillak*, aurreko urtean baiño 7% gelago egin ditue azken aldian. Seat etxeak iñoizko geien saldu ei dau, joan dan garagarrillean.

Kanpoetara bialduriko gauzak 12,9% geitu dira aurtengo urte erdi onetan, igazkoak ikusirik.

DIRU ARLOAN

Bagillaren azkenean 972 milloie dolar maillea egoan, kaltetan, merkantzi dendunean*. Au da, kanpora bialduriko gauzak gitxiago izan direala, balioz, ekarrikoak baiño.

Ordainketa galgearen* egoerea, malatz azkenean, 948,9 milloie dolar urretan eta atzerri-diru* aldagarrietan.

E. E.

ELEIZEAREN IZAKEREA

Len eta gaur

Atsegiñez irakurten ditugu, Jose Lasak «Zeruko Argian» astero argitaratzen dituan artikuluak.

Azken orreetako baten, Eleizearen izakerea ikutu dau: Beñola* zer izan zan, eta gaur zer dan.

Gogozko jaku gaia*. Izan be, Eleiza egoki eta zuzen bat, gure siñismenaren oiñarria lakoa da. Orregaitik, ez dogu uste siñismendun irakurlerik izango danik, gai* onetaz arduratzen ez danik. Bidezkoa da beraz*, gure gogaketakaz batera sentitzen dogun eritxia azaltzea.

BEIÑOLAKO ELEIZEAREN INDARRA TA INFLUENTZIA

«Garai* bat izan zan, diño Jose Lasak, aberats, aundiki, erregeak eta Unibersidadeak Eleizeak bere menpean izan zituana.

«Orduan bai eukan Eleizeak indarra ta influentzia gizartean!»

Baiña guk, Jose Lasari zintzoki erantzunaz, autortu bear doguna, auxe da: Zelan erabilli eban Eleizeak «indar eta influentzia» ori?

Gogora gaitez, garai* aretakoa zala Inkisiziñoa, «indar eta influentziagaz» Eleizeari onore aundirik ekarri ez eutsonea.

Buruan daukagu danok, Aita Frantzisko de Vitoriak Ameriketako indioen alde jokatutako gudaketea, bere Enperadorearen eta orduko Aita Santuen kontra.

Jose Lasaren artikulua agertu zaneke egun aretan eurretan, il onen batean etabian, Donostiko «La Voz de España» egunkariak*, Ismael Herraiz'ek izenpetuta, artikulua batzuk argitaratu zituan, Italiako Eleizeak Mussolini eta fazismuagaz euki ebazan artuemonak aztertuz.

Artikulu orreek irakurri ostean, gitxienez esan geinkena da, artuemon orreek, indarra emon baeutsoen bere, ez deutoela Eleizeari ez ondoren eta ez onore aundirik ekarri.

Proba edo argibide txiki bat: «La guerra de Abisinia (el Vietnam de entonces), irakurten dogu «La Voz de España»n, concitó el entusiasmo delirante de la Iglesia italiana. Las parroquias recogen el oro, organizan colectas y desde el púlpito y los periódicos se ensalza la belleza y el heroísmo civilizadores —en suma cristianos— de la empresa; y en el momento de

la victoria, el Santo Padre comparte el júbilo de un gran pueblo».

Berba bi bakarrik gure aldetik: Azken gerratea amaitu zanean, munduak lenen lenengo egin eban-lana, Haile Selassie Enperadorea bere tronuan ezartea izan zan.

Orregaz, dana dago esanda. Egin eikeen justiziarik aundiena egin eben ainzuzenbe.

«ASKO GALDU ETA GEIAGO IRABAZI»

Lasak idatzitako artikulua orretan bertan, «Eleizeak (gaur) asko galdu eta geiago irabazi dauala» irakurten dogu.

Leku batzutan bai.

Gai* oneri buruz gogaketa bat. Pariseko «Cité Universitaire»ko eleizan entzuten genduzan-meza eta sermoi entzungarri areetako baten, onelan mintzatu* zan bertako Erretore jauna: «Gaur, len baiño katoliku gitxiago gara Frantzian. Gaiñera, Estaduagandik artzen genduan laguntzarik ez daukagu. Eleizea, pobrea da. Alandagutibe, benetan esan geinke, Eleizeak sekula izan ez dauan askatasuna daukola, iñoiz izan ez dauan itzal eta errespetua daukola, bai Errian eta bai Gobernuoko agintarien aurrean».

Orrelan mintzo* izan jaken ikasleeri «Cité Universitaire»ko Erretore jauna. Gero Aita Santu izango zan Roncalli jaunari —Joan XXIIIgn. agurgarriari— bere kardinaletzako kapelua, Frantziako presidentek ezarri eutsonean, ezkertiar sozialista zan Auriol jaunak.

Eleizearen «irabazi» oneri buruz, barriztu gura doguz emen, goi goiko idazle ezagun eta Pax Romanako sekretario izan zan Carlos Santamariak Donostiko «El Diario Vasco»n idatzitako lerroak be.

Onelan mintzo* zan: «No olvidemos que, si en nuestra época histórica y en gran parte de las naciones occidentales la religión católica ha adquirido una situación de prestigio y respeto, de la que no había disfrutado nunca durante el siglo XIX, esto se debe principalmente al hecho de haber renunciado a jugar papel político privilegiado, caído ya en desuso.

Ikusi 11 gn. orrialdean, izartxu bategaz agertzen direan itzen esangurea.

»En la época posconciliar una línea de acción más comprensiva y abierta hacia la libre actividad política de los ciudadanos se le impone a la Iglesia, no sólo desde fuera, sino desde dentro de ella misma. Y esto por una exigencia de perfeccionamiento interno y de progreso espiritual».

Carlos Santamariaren berba oneek, Pariseko «Cité Universitaire»ko Erretore jaunari entzundakoakaz bat datoz.

Beste Erri askogaitik, gauza bera esan geinke?

Harizpe

Euskerazko mezak Bilbaon

DOMEKA TA JAIEGUNETAN

Begoñako Karmelon	8,—
Sagrada Familian	9,—
Deustuko San Felizisimon	10,30
Deustuko San Pedron	11,—
Begoñazpiko Andra Marian	11,—
San Antonen	11,30

ZAPATUETAN ETA JAIEGUN BEZPERETAN

Iralabarriko Frantziskanoetan	6,30
Zurbaraneko Sakramentinoetan	8,30

ABERASTU ZURE EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNAREN zenbaki onetan izartzu bategaz
agerien direan izen esangurea.

B = Bizkaia, G = Gipuzkoa, L = Lapurdi,
N = Nafarroa, D = danak

ABERE (D), animalia, pataria.
ABOTS, boza.
ADABAKI (B), ipinkia, txapela, remiendo.
ADIPEN, atentziñoa.
ADITZ, verbo.
ADOS IZAN (L), konforme egon.
AINTZIRA (L), embalse.
ALBISTA (B), notizia, barria.
ALEGIA (LN), fábula.
ANDI-ANDIKA (B), a grandes rasgos.
ANTOLAMENTU (L), ituna, arreglua.
ARABERE GEIAGO (B), oraindiño geiago.
ARAKATU (B), registrar, examinar, averiguar.
ARAU, (L), norma, regla, ley.
ARDATZ (D), eje.
ARGAZKI, erretratu, potreta.
ARI IZAN (GLN), jardun, zerbait egiten egon.
ARO (D), ambiente, tiempo.
ARRUNT (LN), korrikoa, corriente.
ARTEZ (BL), zuzena.
ASAGO (B), urrun, urrutli.
ASTEKARI (L), asteroko izparringia.
ASUN (D), ortiga.
ATAN, ATAN BE (B), batez bere.
ATZERRI-DIRU, kanpoetako dirua, divisa.
AXUT (LN), aupadea, desafio.
BEINOLA (B), lengo denporan.
BELUMENDU (B), belu edo berandu ibiltea, tardanza.
BERANTETSI (LN), impaciente.
BERAZ (GLN), por consiguiente.
BERERATASUN (B), erosotasuna, comodidad.
BEREZI (GLN), apartekoa, espeziela.
BEREZIKI (GLN), especialmente.
BERIBIL, automobilla.
BILDU (GLN), recoger, reunirse.
BUKATU (GN), amaitu, akabatu.
BUZTARTU (BLN), uniri, unclir.
DENDUN (B), equilibrio. Merkantzia denduna: balanza comercial.
DIRAUSKUNEZ (B), difioskunez.
DOILLOR (B), ruín, villano.
EDERTI, arte.
EGUNKARI (L), eguneroko izparringia.
EKIN (BGL), atakar.
ENDEKATU (B), enteco, degenerado.
EPAITU (BGL), juzgar.
ERABAT (G), guztiz.
ERAGINTZA, promoción.
ERASO (BG), atakar.
ERDI ARO, Edad Media.
ERDIAZI, subdesarrollado.
EREDU (BL), modelo, ejemplo.
ERIXPEN (B), opinión.
ESI (D), seto, valla.
EZUNE (B), escasez, crisis.
GAI (GLN), geia, asunto, material.
GAILLEN (GL), prominente, superior, supremo.
GAILLURTU (G), gailendu, sobresalir, triunfar.
GAINDU (N), dominar.
GAITASUN (GLN), geitasuna, capacidad, disposición.
GALARREN (BG), galerna.
GALDETU (GN), itaundu, preguntatu.
GALGA (L), nivel. Ordainketa galgea: balanza de pagos.
GARAI (GN), sasola, denporea.
GAZATASUN (B), insipidez, sosez.
GEIENBAT (G), batez bere.
GIDATU (GLN), gitar.
GIZAKI, individuo.
GOIBEL (GLN), tristea.
IKUTU (BG), kutsua, aire, contagio, deajo, sabor.
IPINKI (B), adabakia, txapela, remiendo.
IRUZKINDU (B), comentar.
IXURI (D), derramar.
IZAKI, creatura, ser.
IZENGE (B), izen bakoa, anónimo.
IZKERA (GN), lenguaje.
IZKI, letra.
IZOTZ (D), hielo.
JARDESLARI, jardestallea, erantzulea.
JARDETSI (LN), erantzun.

JARITXI (B), lortu.
JATORRIZKO (BG), natural, original.
KARREATU (BG), acarrear.
KUTSU (GLN), ikutua, aire, contagio, deajo, sabor.
LABORE (D), cereal.
LANGA (BG), egur luze ta lodia.
LARDATS (G), naastatua, híbrido.
LEGERRI, Estado.
LETXE (B), legetxe, legez, lez.
LORRINDU (B), ondatu, galdtu.
MARRAO (B), enmascarado.
MINTZATU (LN), mintzo izan, berba egin.
MINTZO IZAN (LN), mintzatu, berba egin.
MUETA (B), klasea.
NABARI (N), evidente, notorio.
OARPEN, advertencia, aviso.
OIARTZUN (LN), eco.
OLDOZTU (N), pentsatu.
OLO (D), avena.
ONDORE (GLN), resultado.
ORBAN (B), mancha, defecto, mácula.
OROKAR, universal.
SALATARI (D), acusador, fiscal.
SALATU (D), acusar, denunciar.
SALNEURRI, prezioa.
SOIL (D), mero, simple.
SORTALDE, eguzkialdea, lestea, Este.
SOSTOR (B), oztopoa, eragozpena, obstáculo.
TAIU (BG), traza, porte, estado.
TXARRETSI, desaprobar.
TEGI (D), gordeteko tokia, almacén, depósito.
UGARTE, isla.
UMOTASUN (D), madurez, sazonomiento.
UMOTU (D), madurar, sazonar.
UNTZEGARI (B), centeno.
UZTA (GLN), cosecha.
ZALANTZA (G), dueda, ezbaia.
ZENBAIT (GLN), batzuk.
ZIL (B), ombligo.
ZUZITU (D), desegin.



HEMPEL'ek

eskintzen deutsu, eskura ipiñiaz,
itxasontzientzat margorik onena

HEMPEL izena

Ludi osoan ezaguna.

BILBO-ko ordezkaria: JOSE LUIS ALDEKOA

Gregorio Balparda, 2, 7.º centro — Tel. 322704

BILBAO-12

Equimar — Ercilla, 1 - Tel. 243954 — BILBAO-9

Etxe Nagusia Barzelonan:

Entenza, 85-87 - BARCELONA-15

Tel. 223 24 27 — 223 39 23 — 223 4687

Telegramak: HEMPATURI

Donibaneko arraintzaleen egoerea

Danok dakigunez, arraintzearen egoera guztiz txarra da Donibaneko portuan. Eta orain urte asko ez dala, Donibaneko portuak fama handia eukan nonnai. Atunetan, ez zan ba bera lenengoa Frantzia guztian? Sasoi atan, Donibaneko arraintzaleak alkartu egin zirean, batu egin zituen euren lanbideak; eta beste portueri irakatsi ederra emon eutseen, miseriaren errekatik urteteko.

Eta gaur zer pasetan jake? Nondik jatorke gaurko ezinbeste ta noraeza? Aurrerantzean ze jokabide artu bear leukee, gaurko zuloatik urteteko?

BETI AURRERA

Mundua beti dabil aurrera. Len ogei urtean beste, orain bost urtean aldatzen dira gauzak. Donibaneko portuak, orain ogei bat urte, aldeketan aundi bat euki eban. Ordurarte, arraintzale bakotxa bere aldetik ebillen. Arrezkero, alkartu egin zirean danak; eta lanari, bat eginda ekin eutsoen.

Alkartasun orren bidez, salerosketa etxeak montatu zituen, izotz* fabrikak, itxaseskolak, seguruak eta abar. Batez bere, itxasontzi aundiagoak erosi zituen, eta arraintzako molda barriak Amerikanoakandik ikasi. Afrikarako errunbua artu eben. Eta eratu be bai bertan, arrain-kontserba kooperatiba bat.

ETA ORAIN

Aitatu doguzan aurrerakuntzok bearrezkoak zirean, eta euren emon dabe. Baiña, len esan dogun lez, mundua beti doa aurrera; eta atzoko ona zana, zaarregi da gaurko. Gure atunzale ontziak zaartzen ari* dira, eta erretirua eskatzen dabe. Txiki-giak dira, urrun ibilteko; eta aundiegiak, portu barruan egoteko.

Gure itxasgizonak zera ikusten dabe, beste naziño batzuetako arraintzaleak —Amerikanoak esate baterako— eurak baiño tresna askoz obeagoakaz lanean dabiltzala, eta neke erdiagaz doble urari kentzen deutsoela.

Egokera onetan, gure arraintzaleak zirt edo zart egin bear dabe jokabide biren artean: edo alan olan segidu, eta erreka ondoa jo; edo, obeto tresnatuta, bide barrietan sartu.

GURE ARRAINTZEAREN GEROA

Gure ustez, Donibaneko portuan ba dago bizibiderik, urreko arraintzatik bizi direan ontzi kokkorrentzat. Polito irabazi leikee dirua, atrapetan daben arraiña freskotan salduta. Baiña olako arraintzatik, lagun gitxi bizi leiteke. Gaiñera, arraintza au ez da naikoa, kontserba lantegieri bizi emoteko eta portuko instalaziñoak bear dan moduan aprobetxatzeko.

Orregaitik, bearbearrekoa da gure itxasertzeko arraintzaleentzat, ontzi aundi ta ondo tresnatuen bidez, arraintza industrial bat montatzea. Olako ontziak bakarrik dira egokiak, urrun joateko, komertzio burrukaldietan ondo urteteko, gure arraintzaleeri eta kontserba fabriketako langilleeri bizibidea emoteko.

Beraz*, gure arraintzea salbatu nai badogu, aunditu egin bear doguz gure ontziak, eta gaur bear direan tresnakaz ornidu.

ASMO BARRIAK

Noizbait elduko dan Europa alkartua eta oraingo tresnatze barria kontuan eukirik, arraintzako ofizioak zabaldu egin bear ditu bere ikus- eta ibilpideak. Alkartu egin bear geunkez, ez bakarrik Donibaneko arraintzaleak, baita, Bilbaotik asita, Baionaraiñoako arraintzale guztiak bere. Gure Kantabria itxasoko portu guztiak alkarrerri lotuta egon bear leukee, danok batera neurri aundiko asmo batzuk lortzeko.

Gauza bera esango dogu gure kontserba lantegietaz be. Mugearen alde bietako kontserbategi guztiak alkarrerri josita egon bear leukee, orretarako bear direan antolamentuak* eginda gero.

Denporea naikoa bear izango da, asmo oneek aurrera eroatuko. Baiña ez deistala iñok esan, obratu eziñak direala. Ez ete da ori, gizonen arteko egitekoa? Eurak gura izan ezkerro, or ez dago egin eziñik.

Orañarte, Euskal Errian bertan, lur jota ikusi doguz ainbeste lantegi, euren ugazabak, bear zirean aldakuntzak denporaz egin ez zituelako. Bardin gagoz arraintza kontuan be. Gure molda zaarreko arraintzea amaitu da. Orañ, bidekurutze baten aurrean aurkitzen gara: edo alkarren arteko kokkorkerietan ibilli, eta danok galdu; edo alkarrerri eskua emon, eta danok irabazi.

KOSTATARRA

(Baionako HERRIA aldizkaritik bizkaieraztua)

ARRAINTZALE BATEN ERIOTZEA



Joan dan illaren azkenetan, Koldobika Anduiza Etxebarria il da. Bermeotarra. «Torrontero» ontziko tostartekoa.

52 urte zituan. Alarguna ta seme-alabak itxi ditu munduan. Gizon ona. Euskaltzale zintzoa. Bere ontziko gizonak eroan dabe gorpua Mendiluzeko kanposantura. Erritar asko joan zan bere illetara. Arraintzaleak batez bere. Goian bego!

Ez da izan besteak lako eriotzea. Koldobika, itxasoan il da. Itxaso urrunean.

Bermeoko ontziak, asagora* doaz. Gero ta urrunago. Algeciras, Canarias, Azores aldera. Edonora. Egaluzea azaltzen dan edozein lekutara. Kantabria itxasora txiki biurtu da euskaldun arraintzaleentzat. Donibane Lohitzunetik asita, Bizkaiko azkenengo porturaino, gure arraintzaleak, eguneroko ogia irabazteko, erbesteko itxasoetara urten bear dabe.

Bizitza gogorra, gaur batez bere, oraingo ontziak ibilkerera gogor orretarako ez baitagoz bear dan moduan orniduta. Bizimodu gogorregia, noizik noizera eriotzeagaz beragaz ordaintzen dana.

Koldobika Anduiza, gaurko egoera gogor orren sinbolu bat da.

Semeak itxi ditu munduan. Eurak be, aitaren antzera, itxasora joango dira. Ez joatea, kobardekeria bat izango litzake. Baiña orduan —seguru gagoz orretan— arraintzaleen bizimodua ohea izango da. Izan bear dau, mnudua aurrera doa-ta. Aurrera gauza guztietan: teknikan, tresnetan, irabazietan, gizonaren diñidadean.

Artu beiez euskaldun arraintzale guztiak, batez bere bermeotarrak, gure dolumiñak; eta era batera, artu beie gure aupadea, orañarteko norberekeriak alde batera itxita, danok alkartu daitezkan, eta kooperatibismo indartsu baten bidez gaurko egoera larria ainbat ariñen aldatu daien. Euren familien eta Euskal Erri osoaren onerako.